

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak 210.000 euroko laguntza emango du 2015 eta 2016an film luzeak ekoizteko

*Ekoizpen horien konplexutasuna eta iraupen luzea ikusirik, Kulturak gastua bi urtez jarraian egikaritzen duen deialdia egingo du*

Miércoles, 01 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak 210.000 euroko urte anitzeko gastua onartu du "2015 eta 2016 urteetan film luzeak ekoizteko laguntzen" deialdia egiteko. Haren helburua fikziozko film luzeak, dokumentalak eta animaziozkoen ekoizpena sustatzea da; film luzetzat jotzen da, hirurogei edo iraupen gehiagoko pelikula, eta zinema-aretoetan, telebistan edo Interneteko plataforman jendaurrean emateko dena.



Udaletxeko plazan egindako filmazioa.

Horrenbestez, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako ikus-entzunezko eta zinematografia-sektorearen sortzaileei lagundu nahi die, bai eta kultur eta sormenaren industriari ere, "talentuaren alde egin eta sormen-sektore egonkor, berritzaile eta lehiakor bat finkatzeko asmoz, eta film luzeen formatuan industria-sare bat sortzeko laguntza ematea ere".

Proiektu horiek abian jartzeko zer konplexutasun dagoen ikusita eta ekoizpenaren aurreko fasea, filmaketa eta postprodukzioa osatzeko behar diren hilabeteak ikusita, gastua bi ekitalditan egikaritu duen deialdi bat eskaintzen da: zati bat 2015. urtean eta bestea 2016an. Horrenbestez, 105.000 euro banatuko dira bi urte horietan.

Deialdien oinarriak laster argitaratuko dira.

Aurreko edizioetan, film luzeei emandako laguntza horiek bi urtetik behin deitzen ziren eta beste bi deialdirekin txandakatuz: film laburrak etaertainak ekoizteko laguntzak, eta pelikula baten proiektuen garapena.

Urteroko beste deialdi bat ere sustatu da eta, hura Nafarroako Foru Komunitatearen arloan egindako zinematografiako jaialdi nahiz lehiaketen antolakuntza ordaintzeko da.

### Telesailak eta pelikulak filmatzeko kenkari fiskalak

Gainera, Nafarroak ikus-entzunezkoen sektorea babesten du ere telesail eta pelikulen filmaketetan % 35eko kenkari fiskalak eskainiz, [araudi fiskala erreformatzeko eta ekonomia-jarduera suspertzeko neurrien Foru Legea](#) jasotzen denez, Parlamentuak iragan abenduan onetsitakoa.

Erreforma berri horrek Nafarroa, Kanariekin batera, herrialdeko pizgarri fiskal onuragarriena bihurtzen du, beste herrialde batzuen ereduari jarraiki; herrialde horietan filmaketak erakartzeko tresna bat dira dagoeneko.

Zinematografia-sektorerako 70. artikulua aplikaziorako bi egoera bereizten ditu: lehena koprodukzioetarako da, eta hark ezartzen duenez, "zinematografia-pelikulen eta fikzio, animazio edo dokumentalen ikus-entzunezko telesailen ekoizpen espainiarretan egindako inbertsioek ekoizleari sozietate-zergan % 35eko kenkaria aplikatzeko eskubidea emango diote".

"Kenkariaren oinarria ekoizpenaren kostu guztiak osatuko du, bai eta kopiak lortzeko nahiz publizitate eta sustapenerako gastuek ere, ekoizpen-kostuaren % 59, gehienez ere, bi kasuetan", gaineratu du. Nolanahi ere, kenkariaren oinarriaren % 25 gutxienez Nafarroako lurraldean egindako gastuekin bat etortzea eskatzen da.

Araua aplikatzeko bigarren egoerak ekoizleek kontratatutako enpresei egiten die mesede ekoizpenerako eskatutako zerbitzu batzuk emateko. Haiek Nafarroako lurraldean egindako gastuen % 35 sozietate-zergan kentzeko eskubidea izango dute. Deskontu hori aplikatuko da soilik, ekoizpena gutxienez astebetetz Nafarroako barnealdean edo kanpoaldean filmatzen bada.

Kasu horretan, kenkariaren oinarria Foru Komunitatean egindako ondorengo gastuek osatuko dute: sormen-langileen gastuak (50.000 euroko mugarekin pertsonako), bai eta ekoizpenerako beharrezkoak diren beste gastu batzuk ere, esate baterako, industria teknikoan eta beste hornitzaile batzuen erabileratik sortutako gastuak, eta garraio, ostatu nahiz mantentutakoak.

### **Mezenasgoaren Legearen bidezko finantzaketa**

Zinematografia-proiektu batzuk ere Nafarroan laguntza jasotzen dute [Nafarroako Kultur Mezenasgoaren Foru Lege](#)aren bidez. Lege horrek deskontu fiskal garrantzitsuak ezartzen ditu interes sozialeko kultur proiektu edo jarduerak egiten laguntzen duten erakunde nahiz pertsonentzat.

Kasu honetan, zinematografia-ekoizpena helbide fiskala Nafarroan duen irabazi-asmorik gabeko erakunde batek sustatu behar du, edo helbide fiskala Foru Komunitate honetan duen pertsona fisikoak, eta negozio-zifraren zenbateko garbia 200.000 euro baino gehiago izan ez duena aurreko urtean.